

PASARTE HAUTATUA

Ez gehiago oihurik egin

Ez gehiago oihurik egin, hil zirenei ez berriro heriotzarik eman, ez oihurik egin, ez oihurik berriro entzun nahi badituzue salbamena espero baduzue.

Beraien hotsa xurumurru sotila da, ez dute soinu gehiago egiten belarrak haztean baino, zoriotsu gizona ez dabilen tokietan.

‘OINAZEA’ (1947)

Itzultzailea: Xabier Lete (*Egusentiarren esku izoztuak*, 2008)

dun zuen, italieraz jarriz William Shakespeare, Luis de Gongora, Stephan Mallarme, Jean Racine eta klasiko gehiago.

Oihu bat eta paisaiak eman zuen 1952an, eta harekin abiatu kritikariak Ungarettiren hirugarren aro poetikotzat hartzen dutena –gerrako esperientziari lotua bazen lehena, gizakiaren existentziaren gaineko gogoetek ezaugarritu zuten bigarrena–. Italiako tradizio liriko berrikusteko nahiak ezaugarritu zuen azken fase hori; Petrarca, Tasso, Leopardi eta beste poeta batzuegana itzuli, eta egitura metrikoari arreta handia jarri zion, forma hendekasilabikoari, adibidez. *Zaharraren kaiera* (1960) izan zen horren erakusle, 70 urteen bueltan idatzi zuena. Zatiketaren, kondentsazioaren eta isiltasunaren alde letratu zen berriz ere poeta, bere mendeko esperientzia handiekin bat etorriko zen poesia baten atzetik. Haren obrari ilun eta itxi fama ekarri zion, baina, horri erantzunez, «izenez bete dut isiltasuna» defendatzen zuen hark.

Hitzaren eta giza esperientziaren zentzuaren bilaketa bizi mantenduzuen azkenera arte Ungarettik. Gertakaririk latzenak onartzeko zuen eragatik akaso, ingurutik arroztearen eta inguruan murgiltzearen artean zerabilen tentsioagatik, gazakia «bere zorira jaurtitako natura» baizik ez dela pentsatzeagatik. Milanen (Italia) hil zen, 1970eko ekainaren 2an, eta haren olerki guztiak *Gizon baten bizitza* antologian bildu zituzten, denboraz eta lekuz gaindikio igaroaldia gogora dakarren izenburu batean.

Pasaieran

Irati Majuelo

Iñigo Roque Manuel Tiagoren *Bost egun, bost gau* nobela laburra eta bi narratibio txo erreskatatu ditu Katakra-kraken azken argitalpenerako. Berreskuratze horrekin batera, akaso ahanzturan utzi nahi genituen kontuak ekarri dizkigu mahai gainera, hiru lan horiek lotzen dituen harria Portugalgo iheslarietara muga pasatzeko lotzen zitzaizen soka bera baita, azken finen, eta mugalari euskaldunak ere aritu baitziren jardun horretan. 1960ko eta 1970eko hamarkadetak emigratio portugesak mila istorio izango ditu kontatzen; honako honetan, lau gaztek mugak iragatzeko bizi behar dituzten miseriak ikusarazten dira.

Istoriok, halaber, ez dira edozeinen eskutik idatziak. Izan ere, Manuel Tiago idazlea Alvaro Cunqueiro da izatez, Portugalgo Alderdi Komunistako kide eta hiru ha-

markadaz idazkari nagusi izana. Iheslaria izan zen bera ere, eta azalean bizi izandakoa eta hurko-egietan ikusitakoa dago hiru idazlan horien atzean. Egiak, erraietatik jaurtikiak, balio bikoitza du beti. Pisu sinboliko handiko lanak dira, beraz, bai egilearen ibilbideagatik, bai euskarara eka-



‘Bost egun, bost gau’

Egilea: Manuel Tiago. **Itzultzailea:** Iñigo Roque. **Argitaletxea:** Katakra.

Ereduzko portaera

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Besteak ez bezalakoa eleberririk psikologikoa da, garapenaren nahasmendua duen haur baten egunerokoa erakusten diguna.

Protagonistak kontatzen digunez, psikologoa eguneroko bat idazteko proposatu dio. Intimitatea inork lapurtuko dion beldurrarekin uzkihurtuta, saiatzen da jazoetako paperera ekartzeko, mutil zintzoa baita. Zerbakiak eta horiek sorrarazteko kalkuluak hartzen dute parterik handiena: zerbaki lehenak zer diren aski ongi erakusten digu, bai eta bestelako bitxikeria franko ere, testuan zein koadernoko marrakietan ikusi ahal ditugunak. Baina halabeharrez beste pertsonen duen harremanak ere erakutsiko dizkigu, hala familiakoak –gurasoak, arreba bi urte gaztea-

goa eta hainbeste maite duen osaba Luis– zein eskolakoak, psikologo zirrikatzailea barne. Ohiako unibertsoa 10 urte bete berri dituen haur baten kasuan.

Kontakizuna gertaera arruntekin doa puska luze batez, harik eta kitzikadura gozagarria eskainiko dion abenturatzeko batek liburuaren amaiera ekarri arte.

Irakurketa gomendagarria, baldin eta gai bagara izateko beste modu horri 168 orrialdeko irakurraldia eskaintzeko.



‘Besteak ez bezalakoa’

Idazlea: Ricardo Gomez. **Ilustratzailea:** Jordi Vila Delcios. **Itzultzailea:** Aintzane Atela. **Argitaletxea:** Ibaizabal.

ritako haren lehen lanak direlako, eta, bereziki, egun migrazioen gaiak eta iragana errebisatzeko beharrak eragiten dituen barne-lurrikarengatik. Balio sinboliko horrek, ordea, narratibioak aurrez idealizatze arriskua ekar dezake, itzal handiegia ezartzeko.

Istoriok simpleak dira egiaz, hizkera eta trama xumekoak. Iheslariaren eta mugalariaren arteko mesfidantza da hiru kontakizunen motorra; etorkizunarekiko ezjakintasunak eta desegonkortasunak bultzatzen ditu hala mendian gora, edota armairu barnean ezkutaturik orduak ematera. Soiltasunari eta ekintzen indarriari emana da Tiagoren idazkera, bidaia behartu horien austeritateari ongi egokitzen zaiona zinez, baina sakontasun gehiagoren falta sumatzen duena sarri. Esaterako, fidatu ezinak sortzen duen ezinegona primeran islatu arren, pasatzaileen amarru eta zitalkeria urriak tentsioa jaisten die narratibioei. Gogorra da esatea, baina onberatasunak harritzen du bat, bereziki hitzaurrean Amets Arzallusen hitzak irakurri ostean.

Gosea, nekea eta kezka izan zituzkeen eleberraren zein narra-

zioen protagonistak, etengabea baita euren presentzia. Gehiago dakigu oin minduek eta tripaziorreiez Andre, Abel, Francisco eta Saulen bizitzek baino. Ez dakigu zergatik duten mugaz igoartzeko beharra, arrazo ekonomikoak ala politikoak dauden atzean, edota biak. Ez dakigu zer uzten duten atzean, zer bilatzen duten mugaz bestaldean, norbait ote duten esperoan. Zerbaitetan eskertuko liriateke halakoak, narratibioei beste dimentsio bat emanen lieke, barrena dardarazkiko ligukeen hondo bat. Baina argi dago idazleak estilo soilarekin bat adierazi nahi izan zuela gertaeren latza, iheslariaren deshumanizazioa, agerian uztea pasatzaileen tza beste bat baino ez zirela askorren artean, larrera eraman beharreko abere galduek balira bezala, Iñigo Roque hitzatzearan ongi adierazten duenez.

Alabaina, Roqueren aitzinsolas eta Arzallusen hitzaurrea dira liburuaren bi puntu fuerteak, Tiagoren kontakizunak iraganarekin eta orainarekin konektatu eta, testuinguru bat emateaz askoz harago, migrantearen begiak pare pare jartzeko dizkigutenak.

Ereduzko itxura

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Eleberririk sozialerik batzuetan lekukotza istorioen itxura hartzen dute, *Wonder*, *mutiko miragarria* liburuan bezala, salaketari indar handiagoko emateko.

Obraren parterik zabalena anomalia kranoefaziala duen Augustin Auggie Pullman pertsonaia hitzari emana dago. Berak kontatzen digu Treacher Collins sindromearekin aurpegia erabat desitxuratua nola jaio zen, eta nola 10 urterekin lehen aldiz zabalduko duen eskola, ordua arte etxean jaso baititu lezioak.

Liburuak lehen ikasturte horretan gertatuko denaren kronika egiten du.

Baina liburuaren egituraz konplexua da (zortzi ataletan banatutako 122 kapitulu, 330 orrialdetan zehar, gehi zortzi orrialdeko gehigarriak amaieran), protagoni-

staren lekukotza ez ezik bere inguruko haur eta gaztetxoena ere biltzen duelako, atalka aldiztatu diren narratibioak ahotsetan.

Estrategia narratiboak eragin-korki garatzen dira, eta garden bezain maitekiro erretratzen da desitxuratutako pertsonen jasan behar duten errefusa, testu irakurteraz eta polifoniko batean.

AEBko ekoizkin arrakastatsuen eredura, liburuak badu inguruan *parafernalia* guztiak: filma, webgunea, erosgarriak eta segidako liburuak.



‘Wonder, mutiko miragarria’

Idazlea: R.J. Palacio. **Itzultzailea:** Jone Hualde. **Argitaletxea:** Denonartean.